

MERKATU SEGMENTAZIOA

Adin guztietako biztanleriari eskainitako zerbitzua da makina nahiz eta, gehienbat adin zehatz batekoak izan. Hala nola, normalki 18 urtetik gorakoek erabilia izango da. Dakigun moduan, adin txikikoak oraindik ere gurasoek erabakitakoaren arabera jokatu behar dute. Esaterako, ez dituzte oraindik guztizko eskubideak horretarako. Baina horri aurre egiteko, adingabeen arropa edo jostailu zaharrak, hau da, jada erabiltzen ez dituztenak, gurasoek makinan sartzeko eskubidea izango dute eta gazte edo umeei makinan dagoen produkturen bat gustatzen bazaie, gurasoek beraientzat erosteko eskubidea ere izango dute.

Bestalde, 18 urtetik aurrerako muga horretan, etorkizunerako ikuspegia sortu duten horiek, zerbitzu hau erabiltzeko joera izango dute, aurrezki edo irabazia lortzeko helburu gisarekin. Bezero hauek ondoren ditugun ondasunak eskainiko dituzte: txiki geratutako arropak, eskolako liburuak, oraindik martxan dabiltzan mugikorrak edota teknologia erabilgarriak... Lehenengo motako bezero horiek, ezaugarri bat dute amankomunean, behar ez dituzten ondasunei bigarren bizi bat eman nahi die. Bestalde, bigarren mailako bezeroak beraien dirua kontrolatzeko eta hainbeste ez gastatzeko bigarren eskuko produktuak erosiko dituzte makinaren bitartez. Gaur egun, langabezia tasa handia da batez ere, gazteen artean, oraindik ikasten ari baitira. Ondorioz, hauek ezin dituzte luxuzko edo lehen eskuko produktuak erosi, ez baitute aurrezkirik.